

PRENTSA TXOSTENA
DOSSIER DE PRENSA

POLTSIKO ANTZERKIAREN 29. JAIALDIA

Urtarrilak **29** - Otsailak **16**

Donostia Kulturak, Kultur Ekintza Sailaren bitartez, Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiaren beste edizio bat aurkezten du. Hogeita bederatzigarrena da urtarrilaren 29tik otsailaren 16ra bitartean egingo den jaialdia eta aurten ere, jaialdi amaierako festa izango da, otsailaren 15ean, larunbata, hain zuzen ere. Formatu txiki eta ertaineko antzerki ikuskizunen askotariko proposamenak osatzen dute programa, hiriaren antzerki programazioa herritarrei eta batez ere publiko gazteenari hurbiltzeko helburuarekin.

Jaialdi honen **xede nagusia** da **barietate antzerkia zabaltzea bai haren ohiko jarraitzaileei, baita tradiziozko espazio eszenikoetara joateko ohiturarik ez duen publikoari ere**. Poltsiko Antzerki Jaialdiaren bereizgarria da, antzezpenetarako oso ohikoak ez diren agertokietan saioak programatzea. Alabaina, agertoki horiek publikoarengandik hurbil dauden espazioak eta lekuak dira (adibidez, tabernak), eta, gainera, oso obra mota berezia ahalbidetzen dute: antzerkia, umorea, bakarrizketak, musika... Horiek izango dira, hain zuzen, jaialdi honen osagai nagusiak, eta gaurkotasuneko gaiak jarriko dira oholtza gainean, kritika eta urratzea nahasita, bizi dugun munduari buruzko ikuspegi desberdina eskaintzeko.

Programazioak, bai garatzen deneko espazioengatik, bai jaialdian bildutako proposamenengatik, formatu txiki eta ertaineko obrak antzezteko eta ideia berriekin esperimentatzeko bidea ematen du. Ildo horretatik, kultur etxeen eguneroko lanaren adibide argia da, ikuspegi desberdina ekartzen baitiote hiriko kultura programazioari, herritarrengandik hurbil dauden ekipamenduetan.

Edizio honetan ere, euskarazko Poltsiko Antzerki Sorkuntzaren 10. deialdian irabazle eta finalista izan diren taldeek parte hartuko dute. Poltsiko Antzerki Sorkuntzaren deialdia Donostia Kulturak antolatzen du, Euskara Zerbitzuarekin eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin lankidetzan.

Aurkeztutako proiektuek maila altua erakutsi dute eta aukeraketa ez da erraza izan. Parte-hartzaileen batez besteko adina gaztea izan da.

Guztira, hamar proposamen jaso ditugu Poltsiko Sorkuntzako deialdian. **Ttak teatroa eta Kamikaz Kolektiboaren *Matriuska*** lana izan da irabazlea eta **Elur Sorkuntza Etxearen *Esnatu naiz***, berriz, finalista.

Ekimen honen xedea, poltsiko antzerkiaren eta, oro har, formatu txikikoaren esparruan euskaraz dagoen eskaintza urria bultzatzea da. Proiektu irabazleak **4.000 euroko** laguntza jasoko du, eta finalistak, **3.200 eurokoa**, antzezlan garatu eta ekoizteko.

Donostiako Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiak programa zabala eskaintzen du 29. edizio honetan, eta tartean **2 estreinaldi** izango dira, aipatutako Antzerki Sorkuntzako lan irabazlea eta finalista. Era berean, **The Chanclettes taldearearen *Diskomobila*** eta **Tartean teatroaren *Ez Dok Hiru Akustikoa*** nabarmendu nahi ditugu.

Oraingoan ere, bi hizkuntza ofizialen presentzia nahiko parekatuta dago eta baita emakumeen presentzia ere.

Guztira **16 konpainiak** hartuko dute parte, hiriko **26 espaziotan** banatuta: horietatik **8 emakumezkoek osatutakoak dira, 1 mistoa eta 7 gizonezkoek osatutakoak**. Hizkuntzari dagokionez, 7 antzezlan euskaraz dira eta 9 gaztelaniaz. Emanaldiei dagokienez, 34 dira guztira (16 euskaraz, 18 gaztelaniaz), eta **generoari begiratuta, 17 ikuskizunetan emakumezkoak dira protagonistak, 2 mistoak dira eta 15 ikuskizunetan gizonezkoak**.

Azken urteotan bezala, edizioari amaiera emango dion festa-ekitaldia izango da, eta honako hauek parte hartuko dute: Paula Valluerca, Nerea Arriolak, eta The Chancettes konpainiak.

PROGRAMA ETA AGERTOKIAK

Urtarrilaren 29tik otsailaren 16ra, emanaldiak eskainiko dira hiriko hainbat lokal eta espaziotan, beti ostegunetik igandera (osteguna, hilak 30, hilaren 29ra aurreratzen dena izan ezik).

Ikuskizun guztietarako **sarrera doan** da.

Hauxe da 2020ko edizioaren programazioa:

ANARKIA RELACIONAL MILA ESPIGA, BELÉN CRUZ gaztelania

- **Loiola. Ardube.** Urtarrilak 31, 19:00
- **Gros. Norta.** Otsailak 6, 20:00
- **Amara. Lau Taberna.** Otsailak 7, 20:00

Beste garai bateko bi emakume, artisau-opilgintzan adituak, tradiziozko eta betiko opilak egiten dituztenak, OPILAK BAKARRIK Jaialdira doaz, euren artearen erakustaldi bat egitera, opilak. Hanka sartu al dute?

ESNATU NAIZ ELUR ETXEA euskara

- **Erdialdea. Botanika.** Urtarrilak 29, 19:00
- **Herrera. El Nido.** Otsailak 7, 20:00
- **Sagüés, Scanner.** Otsailak 9, 19:00
- **Egia. La Taberna.** Otsailak 14, 20:00

Poltsiko Sorkuntza Lehiaketaren aurtengo edizioko komedia finalista.

Elurrek Londresko The Pink Flamingo klubean egiten du lan. Dantzatzeaz eta kantatzeaz gain, bere showa izatea lortu du eta gauero jende asko joaten da bera ikustera.

Harrigarria izan da Elurren eraldaketa. Izan ere, duela 10 urtera arte baserrian bizi zen bere familiarekin.

¡¡INCREÍBLE PERO CIERZO!!

DIEGO PEÑA

gaztelania

- **Egia. La Taberna.** Urtarrilak 31, 20:00
- **Parte Vieja. Altxerri.** Otsailak 1, 19:30

Diego Peña komikoa honelako galderei erantzuten saiatuko da: nondik dator eromena?. Nor dago zoroago, kalean kantatzen duena edo aurpegiratzen diona? Hitz bakar bat ere esan gabe, erotuta dagoela frogatu daiteke?

INPRO-KOMERIYAK.

euskara

- **Antigua. Museum Cementos Rezola.** Urtarrilak 31, 20:00 (M Bermejo, M Santamarina eta I Maruri)
- **Intxaurren. Aitona-amonon etxea.** Otsailak 2, 18:30 (I Pereira, I Maruri eta M Santamarina)

Proposamen berri, berritzaile eta beharrezko batekin gatzakizue. Hori asko esatea dela pentsatuko du batek baino gehiagok, baina guk horrela ikusten dugu argi eta garbi eta horren aldeko apustua egin dugu.

MATRIUSKA

IRAIA ELÍAS eta AMANCAY GAZTAÑAGA

euskara

- **Egia. Le Bukowski.** Otsailak 2, 19:30
- **Igeldo. Itsas Aurre.** Otsailak 9, 19:30
- **Martutene. Etxarriene.** Otsailak 14, 20:00
- **Bidebieta. Kontadores.** Otsailak 15, 19:00

Poltsiko Sorkuntza Lehiaketaren aurtengo edizioko komedia irabazlea.

Etorkizun berri bat eraikitzeko giltza beraien esku dago. Emakume guzti horiek utzitako ondarearen bidez mundua eraldatzera datoz mesias berria eta bere laguntzailea.

IRLANDAR EDO EUSKALDUN

BARRY BARREZ

euskara

- **Sagüés. El Muro.** Otsailak 2, 19:00
- **Aiete. Mamistegi.** Otsailak 6, 20:00
- **Amara. Vía fora.** Otsailak 9, 19:00

Barry Barrez irlandarrak gure herrira etorri zenean hamaika berba eta hamaika kontu bitxia ezagutu zituen. Istorio horiek guztiak kontatu eta kantatuko dizkigu barrez lehertzeraino.

PESPUNTES
FÉLIX ALBO
gaztelania

- **Larratxo. Bikutz.** Otsailak 8, 20:00
- **Erdialdea. Altxerri.** Otsailak 9, 19:30

Pertsonaia bat sortzeko prozesuaren barne-lana erakusteko aitzakiarekin, antzezlanak fikziozko pertsonaia baten bizitzako urrats desberdinak puntuatzen ditu, sormenaren begiradatik abiatuta, eta ironia eta samurtasunaren artean mugitu da.

EZ DOK HIRU
TARTEAN TEATROA
euskara

- **Martutene. Etxarriene Zentroa.** Otsailak 8, 20:00

Zenbat euskal kanta ezagutzen dituzu, zahar edo berri? Kalkulua egin duzu inoiz? "Ez dok Hiru", Euskal Herriko kantutegian oinarritutako ikuskizun teatrala da.

DEGENÉRATE MUCHO
LAS XL
gaztelania

- **Antigua. Doka.** Otsailak 13, 21:00

Ikuskizun berri honekin, argudioz beterik, umorea eta haien ezaugarri den zuzeneko musika alde batera utzi gabe, Las XLe lan neketsuari egiten diote aurre, berriz eraikitzeari, ikuspegi feministatik, beraien buruak berpizteko, malko eta barre-algara, kontraesan pertsonal eta kolektiboen, inposizioen eta errebeldiaren festa batean parte hartzera gonbidatuz.

MADAME SEÑORITA: QUESTION
PAULA VALLUERCA

gaztelania

- **Antigua. Garai.** Otsailak 06, 21:00
- **Loiola. Ardube.** Otsailak 13, 20:00
- **Erdialdea. Botanika.** Otsailak 16, 19:00

Ikuskizuna clownak eta bizitzako galdera handiek inspiratutako show bat da. Ez du asmo handirik, ezpada frogatzea ezen pailazoarena egitea arte bat dela, eta aski dela ikus-entzuleak zoriontsu egiteko. Jendeak ez du ulertzen Madame Señorita. Eta berak ere ez du ezer ulertzen. Zer egiten du? Nor da? Nora doa bizitza?

MONOLOKOS

SOL MAGUNA, GENMA MARTÍNEZ

gaztelania

- **Gros. Baga-Biga Faktoria.** Otsailak 29, 20:00
- **Amara. Vía Fora.** Otsailak 16, 19:00

Askotarikoak, desberdinak, bakoitza bere erara, bere gauzekin, bere maniekin, bere istorioekin... Ikuskizun freskoa, dinamikoa, su-etenik gabea, non "stand up comedy" -aren espiritua berreskuratzen den, baina oraingo honetan bere erara.

AUPA Y OLÉ

NOEMÍ RUÍZ, ASIER HORMAZA

gaztelania

- **Erdialdea. Convent Garden.** Otsailak 14, 20:00
- **Egia. Egiatarra Jubilatuen Elkarte.** Otsailak 15, 19:00

Hamar antropologotik bederatzik diote euskaldunak eta andaluziarrak bateraezinak direla. Bi artista horiek elkartuta, oker daudela erakutsi nahi dizuegu.

QUÉ CONTAMOS CUANDO CONTAMOS

LAS PITUISTER

gaztelania

- **Intxaurrondo. Centro Extremeño Taberna.** Otsailak 13, 20:00
- **Aiete. Miralles.** Otsailak 14, 20:00

Batzutan entzuten dugu "genero indarkeriaz" hitz egiten dela, beste batzuetan "genero rolei" buruz hitz egiten dela.

Askotan entzun dugu "genero-indarkeria" zuzenean lotuta egon ohi dela "genero-rolekin" Baina... nondik datoz genero-rolak?

FESTA

PAULA VALLUERCA

NEREA ARRIOLA

THE CHANCLETES

euskara – gaztelania

- **Intxaurrondo. Intxaurrondo K.E.** Otsailak 15, 21:30

Poltsiko Antzerkiaren 29. Jaialdiaren amaiera ekitaldia. Hainbat artistaren saioak izango ditugu: Paula Valluerca, *Madame Señorita: HER(Z)* antzezlanarekin; Nerea Arriola *DOLOX* "señora"ren paperean eta amaitzeko, The Chanclettes konpainiaren *Diskomobila* saioa.